



2015-2020 LANDA GARAPENeko PLANA LANKIDETZA 16. NEURRIAREN PROGRAMA

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (FEADER) bitartez landa-garapenari laguntzeko Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an emandako 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 35. artikuluan aurreikusitako lankidetzarako laguntzen gastuak kudeatu eta justifikatzeko eskuliburua



Fondo Europeo de Desarrollo Rural:
Europa invierte en las zonas rurales



2015-2020 epealdiko Landa Garapenerako Plana

GARAPENERAKO 16. NEURRIAREN PROGRAMA - 2016

1. bertsioa 2016ko ekaina

Dokumentua	Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (FEADER) bitartez landa-garapenerari laguntzeko Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an emandako 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 35. artikuluan aurreikusitako lankidetzarako laguntzen gastuak kudeatu eta justifikatzeko eskuliburua.
Bertsioa	1
Indarraldia	2016ko deialdia
Arduraduna	Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza
Berrikusita	Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza
Onespena	Peli Manterola Arteta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria
Data	2016ko ekaina



1.- SARRERA

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, 2013ko abenduaren 17an, 1305/2013 (EB) Erregelamendua eman zuten Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bitartez landa-garapenari laguntzeko –indargabe utzita, hartara, Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamendua–; eta testuinguru horretan kokatzen da eskuliburu hau, 1305/2013 Erregelamendu horren 35. artikuluan aurreikusitako lankidetzarako laguntzen 2016ko deialdiaren oinarriak onartzeko xedez Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak emandako Agindua baitu oinarri.

Hauek dira 2015-2020 aldirako Landa Garapenerako Programaren barruan jasotako Lankidetzarako 16. Neurriaren ezaugarri nagusiak:

- Bi erakunderen edo gehiagoren arteko lankidetzeta-moduak sustatzera bideratuta dago.
- Lankidetzaren kostuak eta proiektu pilotuarekin lotutako zuzeneko kostuak soilik estaltzen ditu.
- Basogintzaren sektoreko eta landa-eremuetan nekazaritzakoak ez diren garapenerako proiektuak diruz laguntzera bideratutako laguntzen kasuan, 1407/2013 Erregelamendua ere aplikatuko da, osagarri gisara. Erregelamendu horrek 200.000 euroko gehienekoa ezartzen du onuradun bakoitzeko, hiru ekitaldi fiskaletan banatuta.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza arduratzen da eskabideak izapidetzeaz; proiektuak aztertzeke, berriz, Balioespen Batzorde bat eratuko da. Aurkeztutako eskabide eta dokumentuak aztertu, eta Balioespen Batzordearen proposamena irakurri ondoren, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak deialdia ebatziko du, laguntzak emateko eta ukatzeko ebazpen bakar baten bidez.

Neurri honetara bideratutako funtsak behar bezala kudeatzeko funtsezkoa da laguntzaren onuradunek ongi jakitea zein diren emakida arautzen duten baldintzak eta hartzaille gisara bereganatu dituzten erantzukizunak.

Diru-laguntza jasotzean, onuradunek **diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko erantzukizuna ez ezik, horiek benetan ere gauzatu direla frogatzen duten agiriak aurkeztu behar dituzte, baita ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duten agiriak ere**. Hori dela eta, ekintza horiek behar adina justifikatzen ez badira, ekintzak gauzatu ez balira sortuko liratekeen ondorio berberak eragingo ditu egoera horrek.

Eskuliburu hau Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak prestatu du, organo horrek koordinatzen baitu diru-laguntza horien kudeaketa eta ordainketa-kontrola, hartzaillei orientazioa emateko, diruz lagundu daitezkeen gastuak behar bezala justifikatze aldera haien erantzukizunak



betetzeari dagokionez.

2.- AZPI-NEURRIAK XEDEA ETA HELBURUA

2.1.- NEKAZARITZA-PRODUKTIBITATEAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN ALORREAN BERRIKUNTZARAKO EUROPAKO ELKARTEKO (EIPs) TALDE OPERATIBOAK SORTZEKO ETA MARTXAN JARTZEKO LAGUNTZAK - 16.1-N

EIPs Berrikuntzarako Europako Elkarteko talde operatiboak sortzen eta martxan jartzen, eta proiektu pilotu horren kostu zuzenak estaltzen laguntzea.

2.2.- PROIEKTU PILOTUAK ETA PRODUKTU, PRAKTIKA, PROZESU ETA TEKNOLOGIA BERRIAK GARATZEKO LAGUNTZAK - 16.2-N

Produktu, praktika, prozesu eta teknologia berriak garatzeko babesa ematea nekazaritza-, elikagaigintza- eta basogintza-sektoreetan, berrikuntza-taldeen lankidetzaplanteamenduak erabilita.

2.3.- ERAGILE TXIKIEN ARTEKO LANKIDETZARAKO LAGUNTZAK, ELKARREKIN DITUZTEN LAN-PROZESUAK ANTOLATZEKO ETA INSTALAZIOAK ETA BALIABIDEAK PARTEKATZEKO, BAITA TURISMOA GARATZEKO ETA MERKATURATZEKO ERE - 16.3-N

Eragile txikien arteko lankidetzarako laguntzak arautzea, elkarrekin dituzten lan-prozesuak antolatzeko eta instalazioak eta baliabideak partekatzeko, baita landaturismoarekin zerikusia duten turismo-zerbitzuak garatzeko edo merkaturatzeko ere, landa-eremuetako eragile txikiei lagunduz eskalako ekonomiak bilatzen, horrelako laguntzarik ez baitute bakarka aritzen direnean.

2.4.- HORNIDURA-KATEKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA HORIZONTAL ETA BERTIKALERAKO LAGUNTZAK, BANAKETA-KATE LABURRAK ETA TOKIKO MERKATUAK SORTZEKO ETA GARATZEKO, ETA, BANAKETA-KATE LABURREN ETA TOKIKO MERKATUEN GARAPENARI LOTUTA, PRODUKTUAK TOKIAN-TOKIAN EZAGUTARATZEKO JARDUERAK EGITEKO - 16.4-N

Lankidetzan aritzen diren banaketa-kateko eragileei emateko laguntzak arautzea, merkaturatze-bide laburrak eta tokiko merkatuak martxan jarrita edo garatuta beren produktuak merkaturatzeko eta sustatzeko, baita produktuak tokian-tokian ezagutarazteko jarduerak gauzatzeko ere.

2.5.- KLIMA-ALDAKETA ARINTZEKO EDO HORRETARA EGOKITZEKO EKINTZA BATERATUAK ETA MARTXAN DAUDEN INGURUMEN-PROIEKTUEN ETA -PRAKTIKEN PLANTEAMENDU BATERATUAK GAUZATZEKO LAGUNTZAK - 16.5-N



Eragileen elkarlanerako diru-laguntzak arautzea, klima-aldaketa arintzeko edo horretara egokitzeko, eta ingurumen-proiektuen eta uneko ingurumen-praktiken inguruko baterako planteamenduak egiteko.

2.6.- HORNIDURA-KATEKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZARAKO LAGUNTZAK, ELIKAGAIETAN, ENERGIA-EKOIZPENEAN ETA PROZESU INDUSTRIALETAN ERABILTZEKO BIOMASAREN HORNIDURA IRAUNKOR BAT LORTZEKO - 16.5-N

Banaketa-kateko eragileen lankidetzaz horizontalerako eta bertikalerako laguntzak arautzea, biomasaren horniketa iraunkorrari begira elikagaiak eta energia ekoizteko eta industria-prozesuak sortzeko.

2.7.- NEKAZARITZA-JARDUERAK DIBERTSIFIKATZEKO LAGUNTZA EMATEA HONAKO HAUEKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERATARAKO: OSASUN-ARRETA, GIZARTERATZEA, KOMUNITATEAK BABESTUTAKO NEKAZARITZA ETA INGURUMENARI ETA ELIKADURARI BURUZKO HEZIKETA - 16.7-N

Nekazaritza-jarduerak dibertsifikatzeko diru-laguntzak arautzea honako hauekin zerikusia duten jardueratarako: osasun-arreta, gizarteratzea, komunitateak babestutako nekazaritza eta ingurumenari eta elikadurari buruzko heziketa.

3.- ONURADUNAK, ESKAKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

3.1. ONURADUNAK

16.1-N Azpi-neurria (Deialdiaren Aginduko II. kapitulua): talde operatiboak izan daitezke kapitulu honek araututako laguntzen onuradun, talde operatibotzat ulertuz EIPs-en helburuen baitan arazo zehatz bat konpontzeko edo aukera bat aprobetxatzeko hainbat pertsona fisikoak zein juridikoak osatutako talde bat, beren helburuak lortzeko proiektuak garatzeko asmoa duena.

Gainerako azpi-neurriak (Deialdiaren Aginduko III. eta VIII. kapituluak): berrikuntza-talde bat osatzen duten eta lankidetzaz proposamenak aurkezten dituzten erakunde, pertsona fisiko edo juridikoak.

3.2.- ESKAKIZUN OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK

3.2.1.- Deialdiaren Agindu honetako 5. artikuluko eskakizun orokorrak ez ezik, honako hauek ere bete behar dituzte onuradun guztiek:

- Proiektuek jarduera berriak har ditzatela. Inolaz ere ez dagoeneko gauzatzen ari den jarduerarik.

- Proiektuek dokumentu operatibo bat izan dezatela, honako hauek jasoko dituen:



- a) Proiektu berritzailearen deskribapena.
- b) Aurreikusitako emaitzen deskribapena.
- c) Talde operatiboko edo berrikuntza-taldeko kideen zerrenda, eta horietako bakoitzak garatu beharreko jardueren deskribapena.
- d) Funtzionamenduari zein erabakiak hartzeko moduari dagokienez, gardentasunez aritzeko asmoz ezarritako barne-prozeduren deskribapena.
- e) Berrikuntza-taldeko kide bat izendatzea funtsen hartzaile; horrek banatuko ditu funtsok gainerako kideen artean.

3.2.2.- Eskakizun espezifikoak

- 16.1-N azpi-neurria (Deialdiaren Aginduko II. kapitulua):
 - Talde operatiboko kideetako batek nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreetako balio-katekoa izan beharko du.
 - Dokumentu operatiboan jaso beharko da, baita ere, zer ekarpen egiten dion EIPs-k ezarritako produktibitatea eta baliabideen kudeaketa iraunkorra bultzatzeko xedeari.
- 16.2-N azpi-neurria (Deialdiaren Aginduko III. kapitulua):
 - Talde operatiboko kideetako batek nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreetako balio-katekoa izan beharko du.
 - Nekazaritza-, elikagaigintza- eta basogintza-sektoreetan produktu, praktika, prozesu eta teknologia berriak garatzera bideratuak izan daitezela proiektuak.
- 16.3-N azpi-neurria (Deialdiaren Aginduko IV. kapitulua):
 - Berrikuntza-taldeko kideak laguntza eskatzeko unean jarduera ekonomiko bat ere gauzatzen ari ez diren eragile txikiak (mikroenpresak) edo pertsona fisikoak izan daitezela.
- 16.4-N azpi-neurria (Deialdiaren Aginduko V. kapitulua):
 - Ekoizleen kasuan, ustiategitako titular izan beharko dute, eta ustiategiak EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko du.
 - Ekoizleen erakundeen kasuan, kideen % 50ek gutxienez ustiategiko titular izan beharko du, eta ustiategiak EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko du.
- 16.6-N azpi-neurria (Deialdiaren Aginduko VII. kapitulua):
 - Entitate horiek baso-plangintza iraunkor bat egiten eta energia-hazkuntza modura basoak zaintzen eta ustiatzen aritu behar dira.

√ Baso-plangintza iraunkorraren barruko ekintzak hainbat ziurtagiri izatearen bidez egiaztatzen dira, PEFC ziurtagiria, adibidez.



✓ Basoak labore energetiko gisara mantentzen edo ustiatzen direla egiaztatzeke, jabeak bere nahia adierazi beharko du; biomasa energia-baliabide gisara saltzeko kontratu bat litzateke hori frogatzeko moduetako bat, edo basogilearen eta biomasa energia gisara erabiliko duenaren arteko akordio-agiri bat.

- Erakundeek inbertsioak egin behar dituzte, biomasa eraldatua energia modura erabiltzeko eta biomasa erabiliz energia sortzeko instalazioak egiteko.

✓ Inbertsioak egin izana egiaztatu beharko da: bai biomasa energia gisara erabili ahal izateko eraldaketa-hornikuntzetan (zura ezpal edo pellet bilakatzeko makinak, eta makina horiek zein pelleta erregai gisara baliatuko duten kontsumo-gunera eraman aurretik biltegitratzeko instalazioak), bai biomasa erabiliz energia sortzeko beste edozein elementutan (berreskuratze-tolbak edo berreskuratze-galdarak).

- Erakundeek energia-iturri modura erabiltzeko biomasaren ustiaketa-katean parte hartzen duten beste eragile batzuekin lankidetzakontratuak egin izana egiaztatu behar dute.

✓ Basogintzan diharduen erakundeak eta biomasa erabiltzen duenak lankidetzakontratuak sinatu dutela egiaztatu beharko dute.

- 16.9-N azpi-neurria (Deialdiaren Aginduko VIII. kapitulua):
 - Ezinbestekoa da lehen sektoreko entitate baten partaidetza.
 - Ekoizleen kasuan, ustiategitako titular izan beharko dute, eta ustiategiak EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko du.

3.3.- ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Deialdiaren Aginduko 10. artikuluan jasotakoetatik, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Laguntza emateko ebazpenak eta, hala badagokio, luzapena onartzeko ebazpenak ezarritako epean exekutatzeko diruz laguntzen den gastua.
- Diru-laguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea.
- Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, baldin eta diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunean onuradunek ez badiote berariaz uko egiten, onartu egiten dutela ulertuko da.
- Onuradunek proiektuen emaitzak hedatzea.



- Beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskatzen badizkiote administrazioen bati edo erakunde publiko edo pribaturen bati diruz laguntzen den ekintza bera finantzatzeko, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazi behar diote, eta, hala badagokio, eman egin dizkietela ere jakinarazi behar diote, idatziz, beste diru-laguntza edo laguntza horiek eman dizkietela jakin eta egutegiko hamabost eguneko epean.
- Modu ikusgarri eta ulergarrian adieraztea diruz lagundutako gastu eta jardueri buruz ematen den informazioan edo egiten den publizitatean jarduera horiek Batasuneko eta Eusko Jaurlaritzako funtsen finantzazioa jaso dutela.
- Kontabilitate-liburuak, diligentzia-erregistroak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak izatea, merkataritza-legeriak exijitutako baldintzetan, eta kontabilitate bereiziko sistema bat edo kontabilitateko kode egoki bat izatea, deialdi bakoitzean finantzatzen den inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako, araudiak xedatzen dituen kontrol-lanak egin ahal izateko.
- Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gorde egin behar dituzte, agiri elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-ekintzetarako erabil baitaitezke.

4.- DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

Eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazioaz gainera (Deialdiaren Aginduko 6. artikuluan zehaztuta dago), beste agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Dokumentu operatiboaren kopia.
- Zinpeko adierazpena, aurkezten den proiektuaren jarduerak berriak direla adierazten duena.

16.1-N azpi-neurriari dagozkion laguntzetarako (Deialdiaren Aginduko II. kapitulua), proiektuaren emaitzak EIPs-ren sarearen bidez hedatzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko da.

5.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntzaren gehieneko portzentajea diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 100 izango da, % 80 izanik portzentaje horretarako Europak lagundutako finantziazio-tasa.

Proiektuek 100 puntu jaso ahalko dituzte, gehienez. Laguntza lortzeko, 40 puntu izan behar dira gutxienez.

Laguntza-ildo bakoitzaren barruan, proiektu bakoitzari ematen zaion laguntzaren hasierako zenbatekoa kalkulatzeko, aurkezten diren proiektuak alderatuko dira, eta



aginduak finkatzen dituen hautaketa-irizpide objektiboak eta balioespena aplikatuko zaizkie. Ondoren, azpi-neurri bakoitzeko aurkeztutako proiektuen zerrenda egingo da, proiektuak puntu gehien duenetik puntu gutxien duenera ordenatuta.

6.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Honako gastu hauek diruz lagundu ahalko dira:

- Azterlan orokorren, bideragarritasun-azterlanen eta enpresa-planak egiteko kostuak.
- Proiektu bat bideragarri egiteko, dagokion eremuan garatutako dinamizazio-, bultzatze- eta animazio-jardueren gastuak.
- Lankidetzajardueren funtzionamendu-gastuak.
- Proiektu pilotuak egiteko beharrezkoak diren gastuak.
- Komunikazio- eta hedapen-jardueren gastuak.

7.- LAGUNTZAREN KUDEAKETA

7.1.- LAGUNTZEN ESKAERA

- Diru-laguntzaren eskabidea Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarizuzenduko zaio. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdiaren agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Diru-laguntzaren eredu-eskabidea deialdiaren eranskin gisara argitaratuko da webgune honetan: www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-desarrollo-economico-competitividad/inicio. Esan bezala, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari helaraziko zaizkio eskabideak, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bulegoetan (Donostia kalea, 1 – 01010 Gasteiz) edo Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen Legearen 38.4. artikulua xedatzen duen edozein tokitan aurkeztuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin bat.

Eskabidea informatikoki bete eta gorde ondoren (www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-desarrollo-economico-competitividad/inicio), paperean eta sinatuta ere helarazi beharko da, izapidetze hori ezin baita soilik telematikoki egin.



● Eskabidearekin batera, parte-hartzaile guztiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Pertsona fisikoa izanez gero, NANaren kopia; pertsona juridikoa izanez gero, enpresaren IFKren fotokopia, ahalordetze-eskriturarena, legezko ordezkariaren NANarena eta baita erakundearen eratzte-eskrituraren eta estatutuen fotokopia bana ere, dagokien erregistroan zigilatuta.
- b) Eskatzaileak agindu honek ezartzen dituen betekizun guztiak betetzen dituela, aurkezten dituen agiri guztiak egiazkoak direla eta 5. artikuluan (4.etik 8. paragrafora bitartean) ezarritako betekizunak betetzen dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- c) Eskatzaileak laguntza kuantifikatzeko aurkeztu nahi duen beste edozein dokumentazio osagarri.

● Automatikoki, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak egiaztatu egingo ditu eskatzaileak dagokion foru-ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituelako ziurtagiriak. Hala eta guzti ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori laguntza-eskabidean, eta hala egiten badu, ziurtagiri egokia aurkeztu beharko du.

Eskabideetan aukera izango da eskatzaileak berariazko baimena eman diezaion Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari bere nortasuna ziurtatzeko dokumentazioa eskuratu edo egiazta dezan.

● Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte laguntza-eskabidea eta eskatutako agiriak. Halaber, laguntza-eskabidearen ondoriozko jardueretan, eta prozedurak irauten duen bitartean, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean xedatutakoa betez.

7.2.- ESKABIDEAK EGIAZTATZEA ETA AKATSAK ZUZENTZEA

● Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak ebazpena eman ondoren eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.



- Dena dela,
Kalitate eta

Elikagaien
Industriako

Zuzendaritzak eskabidea egokiro ulertzeko, ebaluatzeko eta izapidetzeko beharrezko deritzon bestelako dokumentu eta/edo argibideak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari.

7.3.- EBAZPENA

Aurkeztutako eskabide eta dokumentuak aztertutakoan, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak deialdia ebatziko du, laguntzak emateko eta ukatzeko ebazpen bakar baten bidez.

7.4.- EKINTZAK GAUZATZEKO GEHIENEO EPEAK

- Aginduan jasotako laguntzei dagozkien gastuak urtebetean edo urte bat baino gehiagoko epean gauzatu ahalko dira. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak aurrekontu-ekitaldi honetan abiarazi beharko dira, 2016an.
- Urtebeteko proiektuak gautzeko epea 2016ko abenduaren 31n bukatuko da, eta luzatutako urtebeteko proiektuak gauzatzeko epea 2017ko abenduaren 31n.
- Hainbat urtetarako proiektuak gauzatzeko epea 2017ko abenduaren 31n amaituko da. Nolanahi ere, epea luzatu egin ahal izango da, eta 2018ko abenduaren 31n amaituko da luzatutako proiektuak gauzatzeko gehienezko epea.

7.5.- ALDAKETAK

Baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, onartutako proiektua edo jarduera ez bada gauzatzen aurreikusitako epeetan edo hainbat urtetarako proiektuen kasuan, eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatu edo birprogramatu egiten bada baina proiektua ez bada funtsean aldatzen eta, betiere, deialdi honetako gutxieneko eskakizunak betetzen badira eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazi eta justifikatu beharko zaio, idatziz, baina diru-laguntza emateko ebazpena ez da aldatuko.

Aitzitik, baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, onartutako proiektua ez bada gauzatzen aurreikusitako epeetan, eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatu edo birprogramatu egiten bada eta horren guztiaren ondorioz proiektua funtsean aldatzen bada baina laguntza helburu bererako erabiltzen bada, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazi eta justifikatu beharko zaio, idatziz, eta diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahalko da. Horretarako, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak dagokion ebazpena aldatzeko ebazpena emango du.



Proiektua

funtsean

aldatzen dela ulertuko da, baldin eta proiektuan hasiera batean ezarritako helburuetako bat modu nabarmenean aldatzen bada edo kentzen bada, gauzatzeko faseetako bat bertan behera uzten bada eta, era berean, proiektuan parte hartzen duen eragileetako bat ordeztzen bada edo proiektutik baztertzen bada.

Gastuaren behin betiko eta benetako kostua laguntza emateko baliatu zen aurrekontua baino txikiagoa bada, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da dagokion proportzioan, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren likidazio-ebazpen bidez, eta, ondoren, diru-laguntzaren portzentajea oinarri berriari aplikatuko zaio.

8.- ORDAINKETA-ESKAERETARAKO ESKAKIZUNAK

8.1.- BALDINTZA OROKORRAK

- Laguntzak modu egokian kudeatu eta ordaintzen direla egiaztatze aldera, inbertsioa egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko epea, gehienez, 2017ko urtarrilaren 31ra artekoa izango da urtebeteko proiektuetarako, eta 2018ko urtarrilaren 31ra artekoa, berriz, hainbat urtetarako proiektuetarako.

Luzapena emango balitz, egindako gastua justifikatzeko agiriak aurkezteko azken eguna izango da emandako luzapena bukatu eta hurrengo hilabeteko azken eguna.

- Oro har, Balio Erantsiaren Zerga (BEZ) eta bestelako zergak ez dira diruz laguntzen.

8.2.- ORDAINKETA-ESKAERAREN DOKUMENTAZIOA

Ordainketa-eskabideari honako agiriok erantsiko zaizkio:

- a) Jarduerak justifikatzeko txosten bat, proiektuaren gauzatzeari eta gauzatzemilari buruzko informazioa dakarrena. Justifikazio ekonomikoa gauzatzeko parte-hartzaile guztiek bete beharko dute eskuliburu honi erantsitako dokumentua, I.ERANSKINA-GASTUEN LABURPENA. Kalitate eta Elikagaien Industriako zuzendaritzara bidaliko dute Excell formatuan.
- b) Jatorrizko fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo administrazio-eraginkortasuna duten froga-balio bereko gainerako agiriak. Egiaztatu eta zigilua jarri ondoren onuradunari itzuliko zaizkio.
- c) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zehazten duena fakturak eta ordainketak justifikatzeko gainerako egiaztagirak ez direla aurkeztu diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk justifikatzeko edo, hartarako aurkeztu badira, zehazten duena zer programa justifikatzeko aurkeztu diren eta faktura edo egiaztagiri bakoitzaren zer ehuneko lagundu den diruz.



d) Hala dagokionean, diru-laguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa-egunean dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen bat.

- Gastuaren izaeraren arabera eska daitekeen beste edozein agiri espezifiko.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela egiaztatzeari dagokionez, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak egiaztatuko du, ofizioz. Hala eta guzti ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori laguntza-eskabidean, eta, hala egiten badu, ziurtagiri egokia aurkeztu beharko du.

8.3.- LANGILE-GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Langile-gastuak justifikatu behar direnean, prozedura hau izango da:

8.3.1.- Soldatapeko langileak

Justifikazio-memoriaren atal ekonomikoan, modu argi eta zehatzean adierazi beharko da nola kalkulatu den proiektuan parte hartu duen pertsona ororen orduko kostua, enpresaren gastuak (ordainsari gordina gehi Gizarte Segurantzako kuota patronala) eta adostutako urteko ordu-kopurua aintzat hartuta. Enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren kostu hori kalkulatzeko, kotizazio-oinarriak eta Estatuko aurrekontu orokorretan ezarritako urteko ordainketa bakoitzerako kontingentzia-motak hartuko dira aintzat. Hau da, Gizarte Segurantzari ordaindutako kuota patronalaren benetako kostua adierazi behar da langile bakoitzeko. Justifikatzeko agiri hauek aurkeztuko dira:

- Nominak
- TC2 eredu eta Gizarte Segurantzako ordainagiriak.
- Enpresaren hitzarmen kolektiboaren kopia, urteko lanaldiaren ordu-kopurua adierazten duena.

8.3.2.- Ekoizleak/Autonomoak

2016. urterako ezarritako erreferentziako errenta **urtean 28.396,56 eurokoa** izango da, hala ezarrita baitago *2016. urterako erreferentziako errenta finkatzen duen abenduaren 2ko AAA/2640/2015 Aginduan*.

Bestalde, eta *Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko martxoaren 31ko Aginduaren babesean (horren bitartez finkatzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategiei dagokienez, laborantzen marjina gordinak, Nekazaritzako Lan-Unitateak –NELU– zehazteko modulu objektiboak eta ustiategien gastu finkoen koefizienteak)*, urtean 1.800 ordutan finkatu dira Nekazaritzako Lan-Unitateak.



Horrenbestez, kasu honetan 15,78 eurokoa izango da orduko kostua.

8.4.- ORDAINKETA

- Ordainketa egiteko, aurretik gastua justifikatu beharra dago, aurreko atalean adierazitako agiriak aurkeztuz.
- Ez da ordainduko laguntzaren aurrerakinik.
- Inbertsioak gehieneko epeen barruan egiten ez badira, luzapenak barne, edo inbertsioa egin izanaren egiaztagiriak epe barruan aurkezten ez badira, ondorio hauek sortuko dira:
 - FEADER Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsaren kontura finantzatzen den laguntza zatiari dagokionez, Funttsa zati hori ordaintzeko konpromisotik aske gelditzea, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 (EB) Erregelamenduaren 38. artikularekin bat.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatzen den laguntzari dagokionez, diru-laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, eta, kasuan-kasuan, agindu honen 16. artikulua diru-laguntzak itzularazteko xedatzen duen prozedura hastea.

**I. ERANSKINA - GASTUEN LABURPENA**

JUSTIFIKAZIO ZKIA.	PROIEKTUAREN IZENBURUA
ESPEDIENTE ZKIA.	
LIDER KIDEA	

GASTUAK	ONARTUTAKO GASTUAK (EUROAK)	JUSTIFIKATUTAKO GASTUAK (EUROAK)
A.- Azterlan orokorren, bideragarritasun-azterlanen eta enpresa-planak egitea		
B.- Egindako dinamizazio-, bultzatze- eta animazio-jarduerak		
C.- Lankidetzeta-jardueren funtzionamendu-gastuak		
D.- Proiektuak egiteko berezko eta beharrezko gastuak		
E.- Komunikazio eta hedapen- jarduerak		
GUZTIRA		

ARDURADUNAREN IZEN-ABIZENAK:**N.A.N.:****SINADURA ETA ENPRESAREN ZIGILUA**



Kidearen izena:	
Kidearen IKF :	
Proiektuaren izenburua:	
Espediente zkia:	

Onartutako gastua

Euroak

Justifikatutako gastua

Euroak

PERTSONAL GASTUAK						GUZTIRA	
	Langilea	Enpresa	Hila/Urtea	Ordainketa-data	Ordainsari gordina	Gizarte <u>Segurantz</u> a kuota	Zenbatekoa
1							
2							
3							

FAKTURAK						GUZTIRA	
	Gastuaren deskribapena	Hornitzailea	Faktura zkia.	Jaulkipen-data	Ordainketa-data	Gutzizko zenbatekoa (BEZ barne)	Egotzitako zenbatekoa (BEZ-ik gabe)
1							
2							
3							

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKORTASUN SAILA

Elikagaien Kalitate eta Industriako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

Dirección de Calidad e Industrias
Alimentarias